



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

2018ko URRIAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION

AKTA

ALKATEA

Juan Felix Naberan Ozamiz jauna (EAJ-PNV)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Julián Maria Uriarte Lamikiz jauna (EAJ-PNV)

Edorta Ibarra Basabe jauna (EAJ-PNV)

Eduarne Murga Santisteban andrea (EAJ-PNV)

Aitziber Ribas Bilbao andrea (EH BILDU)

Jasone Basterretxea Oyarzabal andrea (EH BILDU)

Carlos Mendiola Ugalde jauna (EAJ-PNV)

IDAZKARIA:

Amaia Abanzabalegui Aranguren andrea

Bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita seian, ostirala, arratsaldeko bostetan Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan bildu da Gauteviz-Arteagako Udalbatza, ohiko saioan eta lehenengo deialdian, horretarako egindako deialdiaren ostean.

Udalbatzako kide diren zinegotzi guztiak izan ziren saioan. Alkatea izan zen saioko presidentea, akta hau sinatzen duen idazkari kontu-hartzailearen laguntzarekin.

Udalburutzak saioa irekita, **GAI-ZERRENDAKO** gaiak landu dira:

Lehenengoa.- Onestea, hala badagokio, 2018ko urriaren 5eko saioko aktaren zirriborroa.

Idazkariak 2018ko urriaren 5eko aurreko saioko aktaren berri eman du, eta aho batez onartu da.

Bigarrena.- Onestea, hala badagokio, Zerbitzu publikoak edo prestakuntzako kultura jarduerak emategatiko tasa arautzen duen Zerga Ordenantzaren aldaketa.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Ikusi da beharrezkoa dela zerbitzu publikoak edo prestakuntzako kultura jarduerak emategatiko tasa arautzen duen ordenantza aldatzea, udalerrriaren gaur egungo errealitatera egokitzeko asmoz.

Ikusi da Informazio Batzordeak 2018ko urriaren 19an egindako aldeko irizpena.

Kontuan hartu da ordenantzak onesteko prozedura, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa.

Udalbatzak, saiora bertaratutako kide guztiek aho batez hala adostuta, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Hasieran onestea Zerbitzu publikoak edo prestakuntzako kultura jarduerak emategatiko tasa arautzen duen Zerga Ordenantzako “X. Azken xedapena” eta “Eranskina” atalen aldaketa.

Gaur egungo ordenantzan “X. Azken xedapena” eta “Eranskina” atalei buruz jasotako testua ezabatu da, eta jarraian adierazitako testuarekin ordeztu da:

“X. AZKEN XEDAPENA

11. artikulua

Ordenantza hau eta horren eranskina 2011ko irailaren 30eko osoko bilkuran onetsi ziren, eta 2018ko urriaren 26an aldaketa bat egin zen planoan. Bada, indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Udalaren kirol eta kultura arloko jarduera eta zerbitzuen prezio publikoak

Ikastaroak

IKASTAROA	Zenbat ordu astean	Ikastaroaren prezioa
Pilatesa	1	80 €.
	2	160 €.
Yoga	1,5	120 €.
	3	240 €.
Zunba	1	80 €.
	2	160 €.
Ingelesa	1	80 €.
	2	160 €.
Zirkua	1	80 €.
	2	160 €.
Abesbatza	2	80 €.
Jostura	1,5	120 €.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Mantentzeko gimnasia	1	80 €.
	2	160 €.

Taula hau udalak gaur egun eskaintzen dituen iraupen luzeko ikastaroei buruzkoa da. Ikastaro horiek Alkatetzak onetsitako egutegia kontuan hartuz ematen dira.

Negulekuak, paskualekuak eta udalekuak haur eta gazteentzat

- 30 euro asteko, astean 20 ordu, ikastaroan izena emandako lehenengo seme edo alabarengatik.
- 20 euro asteko, astean 20 ordu, ikastaroan izena emandako bigarren seme edo alabarengatik.
- 10 euro asteko, astean 20 ordu, ikastaroan izena emandako hirugarren seme edo alabarengatik.

Iraupen laburreko ikastaroak

- 10 euro ikastaro bakoitzeko.

Erroldatutakoek lehentasuna izango dute ikastaro eta jarduera guztietan izena emateko.

Asteko ordu kopurua edo egun kopurua areagotu edo murrizten bada, prezio publikoa goitik edo azpitik aldatuko da, proportzionalki.

Ikastaroa hasi edo aurrera eraman ahal izateko, gutxienez 8 pertsonak eman behar dute izena.”

BIGARRENA.- Hasierako onespén hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako zehaztapenak betez.

Hirugarrena.- Handitzea, hala badagokio, udal langileen 2018ko ordainsariak, bat etorritik Udaltzako negoziazio kolektiboarekin eta Eudelen gomendioarekin.

Ikusi da EUDEL-en (Euskadiko Udalerrien Elkarte) 2018ko uztailaren 13ko jakinarazpena. Horren bidez, tokiko erakundeei gomendatzen zitzairen 2018ko ekitaldirako onestea sektore publikoaren zerbitzura lan egiten dutenen ordainsariak, bat etorritik 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.2 artikulurekin.

Ikusi da Informazio Batzordeak 2018ko urriaren 19an egindako aldeko irizpena.

Udalbatzak, saiora bertaratutako kide guztiek aho batez hala adostuta, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Gauteviz-Arteagako udal langile guztien 2018rako ordainsariak handitzea onetsiko da, bat etorritik Eudelen gomendioarekin. Honela egingo da:



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- 2018-01-01etik aurrerako ondorioekin, % 1,5 igotzea langileen ordainsariak 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.
- % 0,25eko ordainsari-gehikuntza osagarria bideratzea, 2018-07-01etik aurrerako ondorioekin.
- Soldata-masaren % 0,3ko gehikuntza osagarria baimentzea. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikulua laugarren paragrafoan edo aplikagarri den beste edozeinetan adierazitako legezko formulen bidez.

BIGARRENA.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Laugarrena.- Aurrekontuari eta ekonomiari buruzko informazioa

Idazkariak 2018ko aurrekontuaren egikaritzearen eta azken hiruhilekoko ordainketarako batez besteko epearen berri eman du.

Jakinaren gainean geratu dira.

Bosgarrena.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea.

124/2018 Dekretua.- O2018/39 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

125/2018 Dekretua.- Gobernu Batzarraren deialdia, ohiko saioan, 2018ko urriaren 10ean.

126/2018 Dekretua.- Alkatetzako funtzioak eskuordetzea 2018ko urriaren 15etik 23ra (biak barne) Gauteviz-Arteagako Udaleko lehenengo alkateordeari, Julián Maria Uriarte Lamikizi, alkatea kanpoan egongo dela eta.

127/2018 Dekretua.- Informazio Batzordearen deialdia, 2018ko urriaren 19an.

128/2018 Dekretua.- Ohiko osoko bilkura deialdia, 2018ko urriaren 26an.

Jakinaren gainean geratu dira.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Seigarrena.- Tokiko Gobernu Batzarraren erabakien berri ematea.

Idazkariak azaldu du 2018ko urriaren 10ean Gobernu batzarrak saio bat egin zuen arren, ez duela astirik izan bilerako akta egiteko. Ildo horretatik, adierazi du egin bezain pronto helaraziko diela zinegotzi guztiei, beti bezala.

Jakinaren gainean geratu dira.

Zazpigarrena.- Eskaerak eta galderak

- **Kanala:** Alkate jaunak bertaratutakoei azaldu die udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu diola neurriak hartzeko trafikoa arintzeko Kanala inguruan. Ildo horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiak lerro jarraia margotu du Kanalan, eta espero da laster beste neurri osagarri batzuk hartuko dituztena Kanalako bide-segurtasuna hobetzeko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

******* AKTAREN ITXIERA**

Landu beharreko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, bertaratu izana eskertu ostean, saioa amaitutzat jo du, goian adierazitako eguneko arratsaldeko seietan. Jarraian akta hau egin da, hurrengo saioan onesteko zain. Bada, Udalbatzako idazkari gisa, hori guztia ZIURTATZEN DUT.

O.E

ALKATEA,

Sin.: Juan Felix Naberan Ozamiz

IDAZKARIA,

Sin: Amaia Abanzabalegui Aranguren